

NORTASUN EZKUTUA

Irati Errezola
Segura, 17 urte

Haizearen joan etorriekin noraezean zebiltzan pago zahar eta abailduaren hostoak jauzi ziren azkenean, nekearen nekez, ahuleziaren ahuleziaz. Urteetan zehar aurrera egiteko norgehiagoka gogorrean etsi eta euren azkenaren ituna sinatu zuten udazken lauso hartako lur hezearekin topo egin zutenean. Ezinaren ezinez, bizitzaren erroari, pagoaren adarrei loturik mantentzen zituzten lokarrietatik urrundu ziren, hurrengo udaberrian berriro indarberriturik berpiztuko ziren itxaropenean. Haizearen dantzara makurtu eta ez zuten oztoporik ezarri hark eskeiniko zien patua aldarazteko, ez kexarik, ez eragozpenik. Baketsu eta lasai joan ziren haizearen bals melankoniatsu eta doinu monotono haien uhinetan barrena, barneko sentimentu kontrajarri haiek alde batera utzi eta aldebaterako zoriona eskurtzeko esperoan. Hostoek lurra- rekin topo egitean tristura itxaropentsua sentitu zuten, edo beharbada poz mingotsa. Alaitasuna, azkenik, sosegu hartzeko beta iritsi zitzaielako eta egunak luzatzen hasten zirenean berriro loratuko zirelako; tristura, beste behin ere ezingo zutelako neguan belardiak zuriz jazten zituen ama elurra ezagutu. Gure hostotxoak kondentaturik zeuden beraien errutina aldaezinera, beraien bizitzak ez zuen inolako aldaketarik onartzen, muga gaindiezina zituzten, jaiio zirenerako beraien halabeharra ortzian idatzirik egongo balitz bezala.

Israel Katz idazle errusiarrak bere eleberrietako

batean isuririko hitzak ongi gordeak zituen Alaznek bere egunerokoaren orrien artean. Alaznek hitz haiek lehenengo aldiz irakurri zituen ezin zuen sinetsi irakurri berri zuena. Hitz haiek bereak ziren, bereak soilik, ez Israel Katzenak.

Zalaparta batean bere idazmahaiaren ezkerreko aldeko beheko kaxoia ireki eta besoa kaxoiaren barneraino luzatu zuen, bere egunerokoak urteetan ezkutaleku izan zuen kaxoia utzia ote zuen beldurrez. Baina, ez. Beldurrez dardarka zituen eskuetako hatzek dantzatzeari utzi zioten beraien azala tertziopelo leunezko liburuska batek laztantzen zuela nabaritzean. Han zegoen bere egunerokoa. Lasaitasunezko hasperen luze batek ihes egin zuen arrapaladan gorriz margotutako Alazneren ezpain lodien artetik, baina bere kopetako zimur sakonak hasperenaren esanahia erabat kontrajartzen zuen, urduritasun eta egonezin jasanezina isladatzen baitzuen. Ezinezkoa zen tertziopelo orlegiz estalitako egunerokoak idazmahaiko kaxoi ilunean gorderik jarraitzea eta aldi berean poema hura Israel Katzen nobela horretan, nornahik irakur zezakeen lekuan, egotea.

* * *

Etorbide nagusiko ertzean zegoen antzinako etxe hartako azkenengo solairuko leiho batetik irtetzen zen argi ahulak Moskuko gauaren iluntasuna hausten zuen. Israel Katzen logelako idazmahaiaren alboko lanpara txikiaren argia zen. Israel idazmahaiaren aurrean, minbrezko besaulki bate-

an eseririk eta axota eskuan bere liburuska txikian gero eleberri arrakastatsu izatera iritsiko ziren hitzak isurtzen ari zen.

Axota mahai gainean utzi, bere sudur luze eta meheak sostengatzen zizkion betaurreko lodiak erantzi eta bi esku arrailduekin, dagoeneko beltzara baino gehiago zuria zen ile kizkurra laztandu ondoren, begiak igurtzi zituen aharrausi luze batekin batera. Zutitu eta noraezean zebiltzan urrats baldarrek egongelako kutxa zaharreraino zuzendu zuten. Kutxa zaharraren alboko besaulkian eseri zen pentsakor, ezerezean galduriko begirada sakanak barnean zeraman ekaitza isladatzen zuelarik. Hogei urte luzez kutxa zahar hura izan zen Israelen tximista eta trumoi etengabeen jatorria; egurrezko kutxa zahar haren barnean zeuden bere zerua betiko estaltzen zuten hodei beltz eta zema-tzaileak. Idazle errusiarrak bazekien, ondotxo jakin ere, kutxa hura irekitzen ez bazuen barneko ekaitzek sortutako uholdeetan betiko itoko zela. Bestalde, beldur eta koldarkeriak ez zioten horretarako behar zuen adina adore biltzen uzten.

* * *

Alazne, sentimenturik pertsonal eta ezkutuenak argitaratuak ikusteak sorrarazi zion urduritasunak eraginda, euritako marroia jantzi eta etxetik atera zen, arineketan kalean barrena, Koldo Mitxelena liburutegira iritsi zen arte. Bertan, liburuzainari errutinazko agur laburra eskeini ondoren, autore ospetsuenen autobiografiak bildumaturik zeudeneko apaletara gerturatu zen, buruan pentsamen-

du bakar bat zerabilelarik: bere intimitatea horren modu labaingarrian hautsi zuen gizon misterio-suari estalkia kentzea.

Artzain Ona katedraleko kanpaiek zortziak jo zituztenean, Alaznek bi ordu luze zeramatzan dagoeneko liburu artean murgildurik; ezer ez zuen lortu ordea. Harrigarria zen, Israel, horren autore ospetsua izanik inongo liburutan hari buruzko daturik ez aurkitzea, ez eta bere izenari buruzko aipamen txikienik ere. Ahaleginean etsita, Alaznek erabili zituen liburu guztiak liburuzainari itzuli zizkion, hark bere lekuan jar zitzaiz, eta gauza guztiak larru beltzeko poltsa batean sartu ondoren, liburutegitik irten zen, Artzain Onaren enparantzatik gertu ireki berria zuten liburudenda batera joateko. Bertan Israel Katzen azken eleberria erosi eta etxera itzuli zen.

Etxera iritsi zenean, denborarik galdu gabe, Israel Katzen liburua irakurtzeari ekin zion, hitz orori arreta osoa eskeiniz. Eleberria irakurtzen hasi zen orduko, irudipen berezi batek harrapatu zuen Alazne, nolabait ere Katzek bere eleberri horretan xehetasunez azaltzen zuen istorio ilunaren protagonista bera izango balitz bezala, bere bizitzako une ezkuturen batean bizi izan zuen gertakizunak azaleratzen arituko balira lez. Istorioaren korapiloan aurrera zihoan eran, Alazneren irudipena sendotzen joan zen, zalantza izatetik ziurtasun osora igaroz. Bai, ziur zegoen, ez zuen inolako zalantzarik, Israel Katzen istorioa bere bizitzako pasadizu baten kontakizuna zen,

kontakizun egiazko eta zehatza, inolako datu fiktizioz apaindu gabea.

* * *

Oraingoan ez zuen hutsik egingo bere iraganeko mamuei aurre egitean. Ez, nahikoa sufrimendu pairatu zuen dagoeneko; ez zegoen prest bere iraganak oraina eta geroa nola gainartzen zituen ikusteko. Begiak itxi, arnasa sakon hartu eta berriro pentsatu gabe, kutxa zaharrari estalkia kendu zion, irekitzen ari zen heinean erdoildutako kutxaertzen karraskara hotsa entzun zuelarik. Begiak ireki eta bere aurrean urteen poderioz horitutako argazkiak, paperak, panpinak eta beste hainbat traste zahar bezain baliotsurekin topo egin zuen. Baliotsuak ziren, ez diruz, sentimenduz baizik. Traste haiek Roberto Otsoaren iragan zoriontsuaren isla da ziren; aspaldi galdu eta berriro berreskuratuko ez zuen zoriontasunaren isla da.

* * *

Dei bat nahikoa izan zen. Errusiako Enbaxadara egin zuen telefono deiak zalantzak argitu zizkion Alazneri. Telefonoaren atzean denbora luzez zain egon ondoren, Errusian Israel Katz izeneko inor ez zela bizi ziurtatu zioten. "Israel Katz" zalantzarik gabe identitate faltsua zen, bere benetakako nortasunaren mozerro.

* * *

Onartu nahi ez bazuen ere, idazleak bazekien, ongi jakin ere, bera zela bere zoritxar guztien erantzulea, ez beste inor, ez beste ezer. Hala ere, ezin zuen ulertu inork bere hondamendia ekar

zezakeenik. Horregatik, bere maitalearengandik banandu zuena, hark jasan zuen istripua zela sinestartarazi nahi zion bere buruari, istripuak eragindako amnesiaren ondorioz bere maitalearen bizitzatik at gelditu baitzen. Urteetan zehar landutako harremana deuseztaturik ikusteak sorrarazi zion ezintasun jasanezinak bere erroetatik ihes eginarazi baitzion.

* * *

Alaznek "Israel Katz" izenez ezagutarazten zen idazlearen liburuan agertzen zen argazkiari begiratu zion. Txuri beltzean zegoen idazlearen argazkiak imagina azkar bat, oroitzapen ahul bat berreskurarazi zion Alazneri. Ordurarte erreparatu ez zuen arren, argazki hark iraganean oso ongi eza gutzera iritsi zen pertsonaren imagina gogorarazi zion.

* * *

Etsipenean murgildurik, irratia piztu zuen Israelek, une labur batez, besterik ezean, errealitateari ihes egin ahal izateko: "Azken uneko berria. Sarritan saritua izan den idazle ospetsu bat *Israel Katz* nortasun faltsuaz baliatu da bere benetako identitatea ezkutatzeko. Errusiako Enbaxada eta Moskuko detektibe sekretu talde bat idazlearen bila dabilta emigrante ilegal bat izango ote den susmoarekin. Datu gehiago goizaldeko albistegi saioan". Irratian entzun berri zuenak eseririk zegoen besaulkitik ziztu bizian altxarazi zuen Israel. Nola zitekeen horrenbeste urtetan ezkutuan gorde zuen sekretua orain bat-batean argitara irtetea?

Nola jakin zuten *Israel Katz* Roberto Otsoaren nortasun faltsua zela? Denbora luzean bere gordelekua izan zen Mosku utzi eta ihes egiteko garaia heldu zitzaion. Oroitzapenen kutxa zaharra baizik ez zuela Robertok aireportura jo zuen. Ez zegoen zalantzarik nora ihes egingo zuen; Euskal Herria zen bere irtenbide bakarra, bertan baitzeuden bere erroak, hura zen bere sorterri eta bihotzean zeraman herri.

* * *

Orain oroitu zen Alazne. *Israel Katz* denbora luzez bere maitale izan zen Roberto Otsoaren nortasun faltsua zen. Alaznek maitekiro Bob deitu ohi zion gizonak Euskal Herria utzi zuen berak istripua izan eta amnesia sakona jasan zuenean. Baina orain amnesiak estali zion iragana berreskuratu zuen eta *Israel Katzen* eleberrien eta bere egunerokoaren arteko harremana ulertu zuen. Bere egunerokoan idatzirik zegoen poema laburra Bobek eskeini zion bere senarrarengandik banatzeak seme-alabak betiko galtzea suposatuko zuela esan zionean. *Israelek*, gero, bere eleberria idazteko iradokizun gisa erabili zuen poema hura.

Errusiako Enbaxada Robertoren sekretuaren jakinaren gainean egonik, Robertok Moskutik ihes egingo zuela aurreikusi zuen Alaznek. Alaznek ez zuen inolako zalantzarik Bobek Euskal Herria aukeratuko zuela Errusiako Enbaxada ekiditzeko.

* * *

Zortzi ordu geroago Roberto Sondikako aireportura iritsi zen. Bere kutxa zaharra jaso ahal iza-

teko zain zegoela, norbaitek sorbaldan ukitu zuela nabaritu zuen. Ezinezkoa zen, Errusiako Enbaxadako ordezkariaren batek honaino jarraitu ote zion? Bihotza inoiz baino azkarrago taupadaka eta eskuak dardarka zituela bira eman zuen, baina bere aurrean ikusi zuen pertsona ez zen Errusiako Enbaxadaren ordezkaria, ez eta detektibe sekretua ere. Aurrez aurre, irrifar gozoa ezpainetan, begirada melankoniatsuz berari so zuen emakumea Alazne zen.

Orain beraien esku zegoen iragana geroaldian zorientasunaren islada ezezik errealitate bilakatzea.